

**AGINDUA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA,
ZEINAREN BIDEZ HASIERA EMATEN BAITZAIO INKLUSIORAKO EUSKAL KONTSEILUA ARAUTZEN
DUEN DEKRETU-PROIEKTUA PRESTATZEKO PROZEDURARI**

Orain sustatzen den arau-ekimenak Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 144. eta 145. artikuluetan xedatutakoa garatuko du. Lege horrek, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoak gizarte-laguntzaren gainean duen eskumen eskusiboarekin lotzen ditu bere preskripzioak (Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.12. artikulua).

14/2022 Legeak VII. tituluaren I. kapituluaren eskumenen banaketa espezifikoa jasotzen du bertan araututako gaien gainean Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalen artean –Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari aitortutako funtzio-esparrutik aparte–. Halaber, bete egiten du Autonomia Estatutuan, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen Arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legean eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean ezarritakoa.

Maila instituzional bakoitzari dagokion eskumen-sortan gainerako instituzioei esleitutako eskumenekin bat egiten duten konexio-puntu ugari daudenez, beharrezkoa da lankidetzeta eta koordinazioko mekanismoak antolatzea. Horretarako, EAEko administrazio publikoei beren artean lankidetzan aritu eta koordinatzeko betebeharra ezartzeaz gain, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren funtzionamenduaren eraginkortasun eta efizientzia handiena bermatzeko aldera, 14/2022 Legeak Inklusiorako Euskal Kontseilua sortu zuen, *kontsulta-eta partaidetza-organo gisa, Eusko Jaurlaritzan diru-sarrerak bermatzeko eta inklusiorako eskumena duen sailari atxikita. Bertan, honako hauek egongo dira ordezkatura: Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak, Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkartzea handiena duten sektore arteko erakunde sindikalak eta ugazaben elkarteak, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa, erabiltzaileen erakundeak, inklusioaren arloan esku hartzen duten Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeak eta inklusioaren arloan lan egiten duten profesionalen erakundeak.*

14/2022 Legearen 144. eta 145. artikuluek organo honen funtsezko elementuak definitzen dituzte. Edonola ere, Legeak berariaz aurreikusten du bere osaeraren, kideen izendapenaren, araubidearen eta funtzionamenduaren definizioa arauz zehaztu dadila.

Bidezkoa da, beraz, xedapen orokor espezifiko baten bitartez erregulatzea haren funtzionamendurako oinarritzko arauak, jadanik aipatutako elementuak barne.

Donostia kalea 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ





Horrela, organo hori indarrean dagoen legearen aginduetara erabat egokituta martxan jartzea ahalbidetuko da, eta, aldi berean, Inklusiorako Euskal Kontseiluaren funtzionamenduaren iragankortasuna amaituko da, 18/2008 Legearen 97. eta 98. artikuluetan aurreikusia.

Aurretik adierazitakoarekin bat etorritz, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeak 26.3. artikuluan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legeak 12. eta 13. artikuluetan xedatzen dutenaren arabera, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehen.- Inklusiorako Euskal Kontseilua arautzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedura has dadila agintzea eta, zehazki, honako hauek zehaztea:

I. Xedea eta helburua

Dekretu-proiektu honen xedea eta helburua da Inklusiorako Euskal Kontseiluko kideen araubide eta funtzionamenduaren, atxikipenaren, funtzioen, osaeraren eta izendapenaren oinarritzko arauak zehaztea, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 144. eta 145. artikulua garatuz.

II. Proposatutako araudiaren edukia

Proposatutako araudiaren edukia honako hau izango da: izaera eta araubide juridikoa, atxikipena, funtzioak, osaera, kideen izendapena, osoko bilkuraren funtzionamendua, batzorde iraunkorraren funtzionamendua, aktak.

III. Bideragarritasun juridiko eta materialaren balioespena

Ekimenaren helburua da Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legearen ezarpen osoa bermatzea, Inklusiorako Euskal Kontseiluaren araubidea eta funtzionamendua zehazteari dagokionez.

Azaldu den bezala, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 144. eta 145. artikuluetan oinarritzen da ekimen hau.

Ondorioz, Inklusiorako Euskal Kontseiluaren araubidea eta funtzionamendua antolatzea funtsezkoa da, eta bestelako irtenbideak ez dira bideragarritzat jo. Berez “ez arautzearen” aukera soilik baliatu ahalko litzateke, bestela urratu egingo bailirateke Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 144. artikulua aurreikuspenak, kide anitzeko organoari deialdien, akordioen, funtzionamendu-arau propioen eta bestelakoen araubidea kenduz.



IV. Ordenamendu juridikoaren gaineko ondorioak

Dekretuak ez luke eraginik izango indarreko ezein arautan.

V. Administrazio ukituaren aurrekontuan, dagokion gaian, eta, halakorik bada, dagokion jarduera-sektorean izan dezakeen eragina

Dekretua aplikatzeak ez du gastua handitzea ekarriko; izan ere, bileretara joateak eta Kontseiluaren eginkizunak bere gain hartzeak ez die konpentsazio ekonomikorik emango batzordekideei.

VI. Egin beharreko izapideak eta txostenak

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak ezarritakoaren arabera administrazio-izapideak egingo dira.

Hasiera-fasea:

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 133.4. artikuluan eta Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak 17.4. artikuluan ezarritakoaren arabera, alde batera utziko da alde aurreko kontsultako izapidea, euskal administrazioen antolamendu-araua delako eta ez delako eragiten euskal herritarren eskubide eta interes legitimoiei.
- Hasteko Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da, bai eta ezagutza partekatuko Legesarea lankidetzagunean ere.
- Ez da beharrezkoa izango generoaren arabera inpaktua ebaluatzeko txostena igortzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak (1/2023 Dekretu Legegilearen bidez onartuak) 20. artikuluan eta Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiak (genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak onartzen dituenak) xedatzen dutenaren arabera. Gidalerro horietan zehazten da ez dela beharrezkoa txosten hori lantzea funtsean antolaketa-izaera duten arau-proposamenetan, esate baterako, administrazio publikoetako langileez osatutako kontsulta-, aholkularitza-, ikerketa- eta koordinazio-organoen sorkuntza, antolamendua eta funtzionamendua arautzen duten proiektuetan.

Aurretiazko onarpena:

- Dekretu-proiektua bi hizkuntzatan idatzi ondoren, Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren agindu bidez oneste bidean jarriko da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak 14.5. artikuluan xedatzen duenaren arabera.



- Arau-mailako eragina aztertzeko memoria bat egingo da, 6/2022 Legearen 15.3. artikuluan arabera.
- Xedapenaren testua Eusko Legebiltzarrari bidaliko zaio, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. artikuluan xedatzen denaren arabera.
- Lan eta Enplegu Saileko Aholkularitza Juridikoak txosten juridikoa igorriko du, 6/2022 Legearen 15.4. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Instrukzio-fasea: Arau-aurreproiektuak, behin onartuz gero, honako txosten eta izapide hauek bete beharko ditu, aldi berean, hilabeteko epean:

- a) Entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea, 6/2022 Legearen 17. artikuluan arabera.
- b) Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostena, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 18.2.a) artikuluan xedatua oinarri hartuta, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 18.a) artikuluan den bezainbatean.
- c) Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren txostena, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 12.1.d) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.
- d) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 2. artikuluan arabera.
- e) Inklusiorako Euskal Kontseiluaren txostena, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 145.1. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- f) Hiru foru-aldundiei eta EUDEL Euskal Udalerrien Elkarteari partaidetza eta kontsultarako izapidea emango zaie.

Ez da nahitaezkoa Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena, arau honek ez baitu eragin berezirik politika ekonomiko eta sozialean (a sensu contrario, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.b. artikulua).

Aginduzko txostenak eta irizpenak:

- a) Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 90. eta 91. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.
- b) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena, alde zuzenetik memoria ekonomiko bat landu ondoren, eduki ekonomikorik ez duela justifikatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginak –urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak onetsitakoak– 25. artikulutik 27.era bitartekoetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta



kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuak 41. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen dutenaren arabera.

- c) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.c) artikuluekin bat etorrita.

Batzorde horren irizpenaren iradokizunen ondorioz aldaketarik egiten bada, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari jakinaraziko zaio, Euskal Autonomi Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren 27.1. artikulua betez.

- d) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena jasotzeko igorritako dokumentazioa Eusko Legebiltzarrera bidaliko da, bat etorritik Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. artikuluan xedatutakoarekin eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 25. artikuluekin.

Amaitzeko eta onesteko fasea. Amaierako espedientea 6/2022 Legearen 24.1. artikuluan aurreikusitako dokumentazioak osatuko du; prozedura osoari buruzko memoria laburra erantsiko zaio, aipatu 24. artikuluen 2. eta 3. apartatuetan adierazitako edukiarekin. Dekretu-proiektua egiteko prozedura amaitu eta gero Gobernu Kontseiluaren behin betiko onspena jasotzeko aurkeztuko da, 6/2022 Legearen 27. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Europar Batasunean egin beharreko izapideak. Ez da ikusten Europar Batasunean inolako izapiderik egiteko beharrik.

VII. Idazteko sistema.

IZO Itzultzaile Zerbitzu Ofizialera joko da Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak 8.1. artikuluan xedatzen duena betetzeko; betiere, apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuaren arabera (zeinaren bidez agindu baitzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko).

Bigarrenena.- Enplegu eta Inklusioko Zuzendaritza izendatzea arau-prozedura hau izapidetzeko ardura duen organo gisa, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 13. artikulua esleitzen dion eskumenaren arabera. Izan ere, horri jarraikiz, enpleguaren, prestakuntzaren, diru-sarreraren bermearen eta gizarteratzearen gaineko arau-proposamenak egiteko eginkizuna dauka.

Hirugarrena.- Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian xedatzen dena egikaritzuz, espedientea elektronikoki izapidetuko da PLATEA-Tramitagune Administrazio Elektronikoko Plataforma Komunean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 9a



Idoia Mendia Cueva
Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburua